

VI ENCUENTRO **BRUMA NEGRA** **LANBRO BELTZA** VI TOPAKETA

Novela y género negro
Eleberri eta genero beltza

Ekainak 21-23 junio
2018

Casa de la Cultura Kultur Etxea
PLENTZIA



Organizan / Antolatzaile

Colaboran / Laguntzaile



Urbe
Kostako
Behargintza



Ayuntamiento de Plentzia
Plentziako udala

Calibre 38

DISEÑO GRÁFICO JOSEVI BLENDER

**Plentziako Udalak
antolatutako
Lanbro Beltza VI. Nazioarteko
Ipuin-lehiaketako
irabazleak**

Dei-egile: Plentziako Udala

Antolatzaile: Revista Calibre .38

Plentziako Udalak antolatutako Lanbro Beltza VI. Nazioarteko ipuin-lehiaketako euskarazko modalitatearen epaileek, hau da, David Crestelo eta Joseba Lozano jaunek, epaimahaiburua Noemí Pastor andrea delarik, hautatu dute, batetik, aurtengo finalista Gotzone Butron Kamiruaga andrea, “Kasu irekia” ipuinagatik, eta bestetik, irabazle hautatu dute Iñigo Legorburu Arregi jauna, “Logikoki eta emeki” ipuinagatik.

Plentzian, 2018ko ekainaren 23an

Zer non

<i>Logikoki eta emeki</i> , Iñigo Legorburu Arregi	5
<i>Kasu irekia</i> , Gotzone Butron Kamiruaga	12

Logikoki eta emeki

Iñigo Legorburu Arregi

—Bainua elkarrekin hartu eta gero lotaratuko dut txikia- esan didazu, baimen eske bezala.

—Eta ondoren, ohean bere ondoan lo hartzen ez baduzu; telebista aurreko sofán nire ondoan lokartuko zara zu ere...

—Beno, gerta liteke... oso nekatuta nago.

—Ba ni, akituta naukazue.

—Aizu, mesedez!!

—Egin nahi duzuna.

Eta egongelara abiatu naiz zuzenean, azken aldian nire habia bihurtu den etxeke gelara. Garai zaharretako azken aztarnak bizirik dirauten gela bakarra da egongela: 80.hamarkadako biniloak, play-stationa eta bidaiari gisara bisitatu genituen mila leku eder. Bikote, eta soilik bikote gineneko argazki zaharkituak, egun zer garen ispiluan erretratatuta ikusten naizenean ahazteko balio dizkidatenak. Bikote gineneko argazkiak, finean, orain teilatupea partekatzen dugun bi banako soilik garelako. Ni ere, beste modu batekoa nintzen garaietako, bilakaera hasi zen arte.

Logikaren eraldaketa hasi zen arte.

Irratia piztu duzu bainugelan berriro, txikia eta zu bainerako uretan murgiltzen zareten bitartean. Transistore zaharra, zure nerabetzaroko traste zahar eta pisutsua, bainuaren ordua eramangarriagoa egiten dizuna; zure hitzetan. Beti ordu berean, egunerokotasunak agintzen dizun bezala. Bestalako gauza goxo, partekatu eta dibertigarrien egunerokotasunak ordea, errutina izateari aspaldi utzi zion gurean.

Bikotea ginen eta orain hirukotea garen arren, ez gara familia bat. Bada denbora zure portaerekin eta egunerokoan darabilzkizun keinuekin, ezin senidetuta nabilela. Badakit nor zaren, baina jada etzaitut ezagutzen. Ez behintzat, orain pare bat hilabete jaio zen ume moko hori eta gero...

Ordurarte baina, dena perfektua zen. Bikote perfektua osatzen genuen eta osatzen ginen, elkarrekiko osagarriak ginelako. Biok lanean eta batez ere langile, gure maitasunezko arkitekturaren eraikuntzan. Lan esparruan ere, primeran zijoakigun dena: ni udaletxeko funtzionario (langile grisa, herritarrei krudel eta lehor hitz eginda, koloreak ateratzen dizkioten horietakoa) eta zu hiriko arte galeriarik handieneko komisarioa zinen. Horregatik agian, komisario zinelako, ezkondu gabe esposatu ninduzun, etorriko zenaren inongo aurretiazko esposaketarik egin gabe. Zure artelan perfektuena izan nintzen.

Eta aldi berean aitortzen dut, oso artista jokatu zenuela ni konbentzitzen.

—Maitea, beste pausu bat eman nahi dut harremanean.

—Ez al zaude ba, gustura? Dena daukagu... elkar maite dugu, aberatsak ez gara baina oparotasunean bizi gara, adiskideak ditugu, gure familiek elkar ulertzen dute...

—Dena daukagu baina guztia eduki nahi nuke.

—Guztia?

—Bizitzak eman diezagukeen guztia: beste bizitza bat sortzeko aukera...

—Seme-alabak izateaz ari zara? Adin honetan? Berrogei urteak ondo pasatuta? Uste nuen biok horri buruz hitz eginda geundela eta akordio bat...

—Akordioa zuk zure buruarekin itxi zenuen. Ni zalantzan gelditu nintzen. Eta zer esan jakin gabe gelditu zena, ni izan nintzen; zalantzati. Gure bizitzaren logika apurtzera zentozen? Edo seme-alabak izatearena, bizitza mota baten logikaren zati zen?

—Gure egoera baldintzatuko duela badakizu, maitea...- nik temati jarraitzen nuen.

—Bai, baina hobera egiteko izango da.

—Seguru? Nik gure inguruan guraso frustratu asko ikusten ditut!

—Baina gu ezberdinak izango gara, jada ezberdindu garelako.

Baietz. Ezezkorik ematen asmatu ez nuenez, zuk zure baitarako baiezko bat asmatu zenuen. Eta bizitzak, gu, berrogei urteak paseak ginenok berrogeialdian jartzen asmatu baino lehen; klinika garestienetara jo genuen hasieratik arazorik izan ez genezan.

Nire logikaren arabera, haur bat ernaltzeko; ama bat jaio behar zelako lehenengo.

Bata txuriko profesionalen arteko tourrak hilabete batzuk iraun ostean, helmugara iristearekin etapa berri baten hasieran kokatu ginen, zu haurdun gelditu zinelako. Hortik aurrera, gure gainbeheraren loraldia etorriko zen, zure aparraldiarekin eta nire zaparraldiarekin batera.

Kabiaren sindromea pairatzen lehena ni izan nintzen, kurioski. Etxean sehaska jarri, txikiaren logela atondu eta pixoihalak erosi... Den-dena aldeztetik antolatua eduki nahi nuen, kontrolatua eta egituratua. Nire lekurik galdu gabe, beste egoera batean lekutzeko aukera ikusten nuen. Txikitako oroitzapenetan murgilduta, nola ikasi nuen margotzen irudikatzen nuen nire burua: marrazkiaren marretatik ez ateratzea zen betebeharreko baldintza, ikastolan. Marratik ez pasa, bizitzaren arrastoan sartzeko, horra ikasgaia. Bizitzak jartzen zizkizun marra gorriak ziren, bizitzak zu antolatu ez zintzan eta zu hura kudeatzeko gai izan zintzen. Oso present neukan iragan baten aztarnak.

Zu bitartean, beste guzien begiradaren erdigunean aurkitzen zinen, erdibiderik onartzen ez zuen erdigune batean. Uneoro zure gainean eta ondorioz, zure mende eta menpeko nahi ninduzun, zure apetak ase nitzan besterik ez zeneukan buruan... eta ni hau ordea, ni-tasunaren baraualdi derrigorrezko baten betekadaz; nire aspaldiko askatasunaren gose izaten hasi zen.

Haurdunaldia ederki joan zen bestela: osasuntsu eta behar adineko pisuarekin zetorren txikia. Niri pisutsu zetorrela begitantzen zitzaidan, egunerokotasunaren zamarekin ezin nuelako. Txanponez ordaindutako lan-jardueraren ostean, txanponaren ifrentzua etxean bizitzen nuen; ordainik gabeko lana hasten zelako. Sukaldata, erosketak egin, zure oin puztu haiek ferekatu... zu, zu eta zu zen dena eta ni jada, ez nintzen gutarra sentitzen. Inguruko en fokia zugaran jarrita zegoen, eta hargatik zure itzala nigan proiektatzen zen egunero; nire dizdira itzaliz.

Niretzat, iluntasunaren itsasargi bat izaten hasi zinen: belztasunik beltzenera eraman nahi ninduen erreferente argi bat. Argitsua izatea falta

zitzazun.

Haurdunaldiak beraz, aurretik erditu zuen gure bikotea, bateraezintasunen batasuna ekarri zigulako. Gai bakarra gure gurasotasuna zen, gure lanek jada ez zuten garrantzirik zuretzat eta tertuliak, bakarrizketa lagunduak besterik ez ziren.

—Zein hezkuntza mota emango diogu gure txikiari, maitea?

—Besteek euren txikiei ematen dietenaren antzekoa, suposatuta nahi dut...

—Ikastetxe pribatu batean sartuko dugu?

—Etxeko hezkuntzaz ari zinela uste nuen! Zu ikasteaz ari zara.

—Nik balioetan hazi nahi nuke gure txikia...

—Nik ahal dugun bezala!!!

Nire erantzunarekin guztiz haserretu zinen lehen aldia izan zen. Gure lehen eztabaida sutua suertatu zen, epelkeriarik gabe nire hoztasuna borborka igorri nizuna estrainekoz. Zure erdigune izatetik, periferiara bidali ninduzula senti nezakeen, eta hori ez zitzaidan logikoa iruditzen. Zure zutabe eta oinarri izandakoa ordurarte, habe etzan bat bezala irudikatzen nuen nire burua, eta zu nire gainean eta nire gainetik esertzen zinen.

Dena den, jendearen aurrean nire desadostasuna eta haserrik ez plazaratzeko gai izan nintzen. Antzerkiak aurrera egin beharra zuen eta nire interpretazioak, sinesgarria izan behar zuen. Publikoak osatzen zuen laugarren horma hura, ormatuta uzteko modukoa. Eta bide batez, interpretazio hark etorkizunaren gidoia interpretatzen hasteko aukera ematen zidan.

Eta azkenik urak hautsi zenituenean, bizitza berri ez baina berritu bateko olatuetan murgildu ginen igeri. Txikiaren negarrek, irriak piztu zizkiguten

bioi.

Irri horiek, pozetik gutxi izan zuten nire kasuan. Irrigarri gelditu nintzelako nirekiko, nuen aurreko bizimodu eder hura galdua. Ez zen logikoa, alderantzizko logika hura gailendu izana: besteak niretzako bizitzetik, ni besteentzako bizitzera pasa nintzen.

Neure buruaz beste egite horrek, suizidiotik asko zeukan. Xelebrea zen: bizitza berri bat munduratu, nitaz beste egiteko. Uneoro, erbesteratua sentitzen nintzen nire etxetik, eta lekurik- eza eta etxea zen ez-lekua batera zijoazten eskutik.

Nire barne-mundu horrek ez zuen zerikusirik kanpora islatzen nuen bestearekin. Denek zoriontzen ninduten, denek opariak egin eta denek hobetsi hartutako erabakia. Logikoa zen, euren begietatik ikusita. Eta nik, logika hari jarraiki, haien begietatik ikusiz jarraitzen nuen.

Barne-giro mikaztuari ordea, barru-giroa gehitu behar zitzaion; etxeko barru-giroa. Txikiak kolikoak zituen, bularra nekez hartzen zuen eta gauean lorik egiteko apenas egoten zen denborarik. Lo falta hura, amesgaizto bihurtzen hasia zen jada.

Eta horregatik pentsatu dut guztiarekin amaitzeko ordua dela. Logikoa denez, besteen logikatik begiratuta pentsatu dut ekintza. Zoritxarraren Arkadia honi amaiera eman behar diot nolabait.

Nire emetasunaz baliatuko naiz honetarako, noski. Ni eta zu emakumeak izaki, emeki-emeki otu zaidan plana eramango dut aurrera. Jendeak uste izango du, soilik emakume izateagatik amatasunak nigan barneratua eta txertatua egon behar duela, derrigor. Baina ustezko amatasun hori, mito bat da nere kasuan. DNA, ez delako dena.

Ni, lehenengo pertsona bainaiz eta gero emakumea.

Eta pertsona izateari eusteko ahalegin horretan, logikarik gabeko lorik eza, desorduetako otordu edo intimitate falta horrekin amaitzeko, bainugelako irratia itzaliko dizut. Eta itzaliko zaituztet. Jada, erlaxatuta eta erdi-lo egongo zarete txikia eta zu, ur-epeletan lasai lasai; eta ez duzue ezer sentituko.

Ez duzue ezer sentituko irratia uretara bota eta urak, oraingo honetan suzko garretan, bigarrenez hautsiko direnean. Urak, bere onera etorri daitezten. Heriotzaren txinparta honekin, zuen bizitzak amatatuko ditut.

Eta inork ez du ezer susmatuko. Amatasunari buruzko uste, topiko eta klixen zilborresteak, bizitza guztirako elikatuko nauelako.

Iñigo Legorburu Arregi. Hernanin jaio zen (Gipuzkoa). Hogeitik gora sari lortu zuen bertsopaperen atalean, tartean, Basarri (Zarautz), Okelar (Mutriku), Iparragirre (Zumarraga-Urretxu), Altza, Mungia edo Eibarko bertsopaper lehiaketak irabazi ditu. Azken urteotan euskarazko literatur lehiaketetan hainbat sari irabazi zituen.

Genero beltzean egindako haren lehen saioa da hau.

Kasu irekia

Gotzone Butron Kamiruaga

ETAk bere amaiera iragarri zuen hurrengo egunean agertu zen lehenengo gorpua Plentzian. Gero, dena gertatu zen hain azkar ezen bizilagunek ez zuten denborarik ere izan gertaerak barneratzeko. Eta ordutik hona, herria ez da lehengoa.

Unai agenteak ohean utzi zuen neskalaguna udaltzaingoaren bulegora abiatu aurretik. Benga, guapa! gero deituko dinan -esanez agurtu zuen jakin barik agindutakoa ezin izango zuela bete. Egun batzuk aspergarriak izaten ziren bulegoan: txostenak amaitu, trafikoko isunak tramitatu, salaketak jaso..., berak nahiago izaten zuen patruila izan. Pozik zegoen etxetik hurbil lan egiteaz, inguruko txoko guztiak ezagutzen zituen eta askotan hondartzako aparkalekuan egiten zuten etenalditxo bat olatuei begira zigarro bat erretzen zuten bitartean, lankideak eta berak. Ondo konpontzen zen berarekin eta, orokorrean lankide guztiekin; berezi batzuekin izan ezik. Hauengandik nahiago izaten zuen urrun ibili.

Goiz hartan, osteran, ez zuen bere neskeri deirik egiteko akordurik ere izan, bulegora heldu orduko ikusi baitzuen ertzaintzaren patruila-auto bat argi urdin intermitenteak jarrita plazaren aurrean. Harrituta bere telefonoari begiratu zion batera agortuta zuela konturatzeko. Kaka! —pentsatu zuen ezpainak estutuz, bere buruarekin haserre. Gizon bat agertu da hilda zubi ondoko pantalan txikiaren ondoan! —jakin zuen berehala, bertaratzeko

agindua jasoaz. Ranpara heldu eta han ikusi zuen gorpua lurrean, inguru guztia prezintatuta eta brigada kriminalekoak lanean, epailearen zain. Hildakoaren buruan kolpe batzuk somatzen ziren eta, zaurietatik zerion odola gogortzen hasita maldan bera zeuden odol lerro-arrastoak bezala. Orduan ezagutu zuen Arratibel sargentua patruila-autoren ondoan aginduak ematen ahots irmoarekin, haserre egongo balitz bezala, harrিতuta baino.

Miatu inguru osoan —entzun zion esaten bera heltzen zegoen unean.

Mirian Arratibel ez zen tratu errezeko pertsona. Urteetan, emakume bakarra izan zen polizia judizialean, eta bertan gogortu zen lankideen broma eta mesprezuei aurre eginez. Baina bera ez zen atzera egiten zuen horietakoa eta, akatsen bat eginda ere, aurrea hartzen zion edonori, gehienetan modu zakarrear.

Eguna argitu orduko ez zebilen beste berririk auzokide guztien ahotan zein komunikabideetan. Aurreko eguneko ETAREN komunikatuak eragin zituen erreakzioak Plentzian hilda agertu zen gaztea eta beronen inguruan sortu zen ikerketaren gaineko berriekin nahastu egin ziren; are gehiago ertzaintzaren bulegoan anonimo hura agertu zenetik.

Gorpua identifikatu eta gero Arratibelek ez zuen asmatzen zer egon zitekeen hilketa haren atzean. Hildakoa Deustuko gaztea zen, lanbiden izana emanda, langabezian beraz, eta mutil jatorra, bere gurasoei kasu egin behar bazitzaien. Etsairik diozu? Zelan edukiko du etsairik mutil normal batek? -lehertu zen ama azkenean. Lagunak, pare bat besterik ez zeuzkan, egia esateko. Horregatik auzokoak, irakasleak eta familiakoak elkarrizketatu zituzten baina ez zuten gauza handirik argitu.

Arratsaldean, anonimoa helerarazi zioten Miriani bulegoan sartu bezain laster eta zeukan buruko minari, ezinegona gehitu zitzaion. Eskaneatuta

bidali zioten Plentziako bulegoan agertu zen mezua: “Geu gara manada”. Kaguen zotz! —esan zuen sargentuak—. Errebisatu oraintxe bertan azkenengo bost urteetako bortxaketa-salaketa kasu guztiak ea zeozer aurkitzen dugun. Emilio, zu eta ni Plentziara goaz. Sententzia madarikatu horrek bazterrak harrotu ditu leku guztietan.

Plentziako bulegoko eskailerak igotzeko arnasa hartu zuen Mirianek. Gorroto zituen sexu-indarkeri kasuak, hilketak baino gehiago. Ezinegona sortarazten zion argudioak argitu beharra, hitzak tentuz aukeratu beharra eta, ondorioz, gehienetan eztabaidan amaitzen zuen lankideekin. Berak ez zeukan bikoterik; beno neskalgunak bai, bere sexu-kontuei modu leungarrian nolabait deitzeko, baina aspaldian erabaki zuen bera ez zela inori lotuta bizitzekoa, batez ere azken urteetan izandako bikoteak bere kontrako salaketa jarri zuenetik. Baina hori aspaldiko kontua zen eta, harrez gero, ahaztuta zeukan. Aurreko eguneko agente gaztea ez ezik beste lau gizon ere aurkitu zituen Plentziako bulegoan, telefono deiei erantzuten, azalpenak ematen eta alderik aldera zurrumbilo batean sartuta. Erleak erlauntzaren inguruan —otu zitzaion.

—Non dago goizeko agentea? —galdetu zuen agur modura.

—Duela ordu pare bat bidali dugu etxera. Hau zoramena da, Arratibel anderea.

—Sargentua! Inporta ez bazaizu!

—Bai... sargentua! —erantzun zuen bulegoko arduradunak apur bat lotsatuta.

—Ba, ekarri bueltan lanera. Ordu erdian hemen behar zaituztet guztiak. Anonimo gehiagorik?

—Ez, sargentu!

Herrian ezinegona nabaria zen. Jendea beldurtuta zebilen. Tabernetan eta dendetan ez zegoen beste gairik auzokideen ahotan. Harridurarekin batera morboa ere piztu zen, batez ere anonimoaren berria zabaldu zenean.

—Mereziko zuen! —entzuten zen noiz edo noiz.

—Ez ezazu horrelakorik esan! Hori barbaridatea!

—Hiltzen dituzten emakume guztiak ez da barbaridatea? Eta nori inporta zaio?

—Zer diozu? Emakume batek hil duela gizajoa?

—Ba... ba... nork daki!

—Ezinezkoa! Indar handia behar da gizon bat hiltzeko.

—Ez, bi edo hiruren artean...

Baina gehienetan elkarrizketak amatatu egiten ziren kanpokoren bat hurbiltzen zenean.

Hurrengo hiru egunetan Mirian bulegoz-bulego ibili zen, aginduak ematen, azalpenak prestatzen eta jende mordoa elkarrizketatzen. Herriko emakume-taldeekin ere bildu zen eta sexu-eraso eta abusu salaketa guztiak errepasatu zituen. Biktimaren kontrako salaketa bat aurkitu zuen, desestimatutakoa, deklarazio oso kontradiktorioa baitzen. Autopsiak argitu arren indar handiz kolpatu zutela gizon gaztea, hari horri tira egingo ziola erabaki zuen berak. Baina denbora gutxi zeukan horretarako, bere nagusia urduri zegoen eta komunikabide guztiak haien atzetik zebiltzan. Autopsiaren emaitza heldu zenean Mirianek alde aurretik zekiena baieztatu baino ez zuen egin: heriotza buruhezurreko kontusioak eragin zuela, objektu gogor batekin, harri bat edo antzeko zeozerekin. Baina

harria ez zen inon agertu; itsasadarraren hondora botako zuten, seguruenik. Laugarren egunean, goizeko hamarretan, beste dei batek moztu zuen Plentziako bulegoko giroa agente guztiak paralizatuz. Edadeko gizon bat agertu zen hilda Uribe hoteleko gela batean. Garbitzaileak aurkitu zuen eta shock egoeran gelditu zen.

Mirianek, komunikazioa jaso bezain laster, patruila-auto bat eskatu eta ziztu bizian abiatu zen bertara. Inork ez zuen ezer ikutu bera heldu aurretik; hobeto horrela. Gizona, pijama-prakak jantzita eta bularra agerian, lurrean zegoen zerraldo. Ez zen odol tantarik inon ageri, baina gerritik tolestuta zegoen gorpuak eta ezpain moreek minez hil zelaren susmoa zabaldu zuen. Hoteleko langile eta bezero guztiei egin zizkieten galderak baina inork ez zuen ikusi edo antzeman ezer berezirik. Betikoa!-pentsatu zuen sargentuak. Hildakoa, Madrileko bizilaguna kasu honetan, bakarrik zegoen hotelean egun batzuk pasatzen bertoko bezeroa baitzen azken urteetan. Plentziaz maiteminduta zegoela esaten zuen askotan. Eta nahiko hitzuna bazen ere, inork ez zion lagunik ezagutzen. Bizpahiru egun ematen zituen herriko bazterretatik paseatzen eta jendea agurtzen baina hotelera, bakar-bakarrik joaten zen beti. Elkarrizketarik luzeenak kamareroekin izaten zituen gehienetan.

Ordurako alkateak eta Ertzain buruek lasaitasun mezuak zabaldu zituzten komunikabide guztietan, Polizia judiziala lanean zegoela hilketak lehenbailehen argitzeko eta errudunak bilatzeko. Hala ere sare sozialak sutan zeuden.

Laugarren egunaren goiz osoa eta arratsalde parte eman zuen Mirianek bulegoan, datuak kontrastatu, estrategiak antolatu eta, batez ere, bi kasuen

arteko lotura baten bila, harik eta bihozkada batek eraginda, Plentziako bidea hartu zuen beste behin ere, ez ordea, lehenago Unai agenteari deitu eta egin behar zuen hurrengo bisita berarekin egiteko agindua bidali barik. Gustatu egiten zitzaion Miriani Unai agentea, pertsona planoaz zirudien, tolesdurarik gabea. Gainera, inguruan bizi zen eta horrek abantaila ematen ziola pentsatu zuen sargentuak. Kalea ezagutu egin behar dela pentsatzen zuen berak; kalea, auzokideak eta herri bakoitzak gordetzen dituen sekretu ilunak.

Bien bitartean egun batean bai eta hurrengoan ere bai “manada”ren sententziaren kontrako protestak komunikabideak eta kaleak betetzen zituzten. Baita Plentzian ere, non “Hermana, yo sí te creo”, “Bortxatzaileak trituradorara” edo “Emakume: autodefentsa da bidea” mezuak herriko hainbat hormatan agertu ziren margotuta, egun horietan irakaskuntzan, epaitegietan eta udaletxearen aurrean deituta zeunden greba eta protesten isla. Mirianek aurrez aurre topatu zuen herriko emakume-taldeen antolatutako elkarrataratzea udaletxeko plazan, Unairen bila joan zenean.

Giro ederra duzue herrian! —agurtu zuen bromatan agentea gidariaren lekua uzten ziolarik—. Mousurietara goaz bisita bat egitera.

Han, apur bat izkututa zegoen Begoña Aizpuruaren etxea topa zuten GPSari ezker. Emakumea ere, bertan topatu zuten, ortuan lanean. Ederra lekua! —agurtu zuen sargentuak, bere burua eta kidearena aurkeztuz.

Ordu laurdenean elkarrizketak argitu ziren Begoñaren lan-ordutegia Arrarte jatetxeko sukaldean eta asteartetan libratzen zuela, taberna egun horretan ixten baitzuten. Asteburuetan, berriz, lan itzela egoten zela beti, batez ere eguraldi ona egiten hasten zenetik. Alabaren gainean jakin zuten kanpoan

zegoela ikasten, Bartzelonan, estetika ikasketak; hemen ere egin zitezkeela baina alabak nahiago izan zuela herritik irtetzea.

Ba al zenekien zure alabak salaketa bat jarri zuela duela urte eta erdi sexu erasoagatik? —emakumearen kopeta ilundu egin zen—, gero salaketa kendu zuen baina halako kasuetan erregistro bat geratzen da. Zer dakizu horren gainean?

Sargentua eta agentea Mousurietatik bueltan andrarekin izandako elkarrizketa komentatu zuten euren artean. Zeozer arraroa zegoen salaketa hartan baina neskaren amak ez zien argitu. Edo ez zien argitu nahi izan.

—Unai, adi ibili behar dugu. Pentsatu zelako presiopean nagoen kasu hauek argitzeko! Zuk herriko jende asko ezagutzen duzu. Nire ustez hor arakatu behar dugu, jendearen komentarioetan, herriaren arnasean. Ulertzen didazu, ezta? —agurtu zuen sargentuak bere laguntzaile berria.

Bulegoan Mirianek bere nagusiaren deia jaso zuen, Ordizian gizon bat itota agertu zela, Oria ibaiatik ateratzen ari zirela momentu horretan eta bi ikertzaile gehiago bidaliko zituela Plentziako kasuak aztertzeko. Emaizak behar ditugu! Baina berehala!, Sailburuaren deia jaso dut gaur goizean eta komunikabide guztiak gure zain dauzkagu! Ezin gara barregarri geratu! —mehatxu bat gordetzen zuen esaldiarekin moztuz deia. Errefortzuak bidaltzea berri ona izan zitekeen ez balitz beraganako konfidantza galera erakusten zuelako. Umiliazio antzeko bat sentitu zuen eta aurpegia gorritu egin zitzaion. Lankideei ez zitzaien detailea oharkabeen pasatu. Orduan hasi zen pentsatzen, lehenengo aldiz, ETArek ekintza armatuaren sasoia behin amaituta ea ez ziren egongo emakume talde-hiltzaile-antolatuen baten jaiotzaren aurrean egongo. Eta ideia hori bueltaka ibili zuen burutik baztertu ezinik, Erandioko egoitzara abiatu zenean. Han, sorpresa batekin

egin zuen topo: atletik sartu orduko, ikerketako kide berriak ezagutu zituen baina ez zioten konfidantzarik eman. Arraro iruditu zitzaion gizonak hain goiz ailegatzea, eta bere atzetik prestatutako zeozeren susmoa hartu zion.

Uribe hotelako biktimaren autopsiaren emaitza heldu zenean Mirian ez zen harritu, beste inongo indiziorik gabe pozoia zen bere susmoa ere. Baina taxus baccatarekin! Hori sorginen kontua zirudien. Gaur egun, nork ezagutzen zuen zuhaitz horren kimika edo ahalmena? Gazte eta ez hain gazteen hiztegia horrelakoxea baitzen: txoria, zuhaitza, animalia... eta ez zegoen nork desberdinduko zuen txori bat beste batetik edo zuhaitz bat beste batetik. Gainera hagina ez zen hain zuhaitz ezaguna. Arratsalde osoa eman zuen fitxeroetan arakatzen eta burua bete-beteta baina aurrera egin ezinik. Azkenean garagardoren bat hartzera irtetzea erabaki zuen, apur bat despejatzeko.

Hurrengo egunean, goiz-goizean Mirianek Unai agentearen deia jaso zuen. Uste dut zeozer daukadala —entzun zion esaten animatuta. Agenteak lagun asko zeuzkan herrian, baita tabernetako zerbitzariren bat edo beste. Eta, hemen galdetu han galdetu, jakin izan zuen madrildarrak, apur bat edan eta gero, bere harropuzkeriak kontatzen zituela, eta noiz edo noiz eskapatu omen zitzaiola behin neska bat behartu egin zuela honek probokatu eta gero ez zuelako hasitako lana amaitu nahi izan, eta salaketa eta guzti jarri ziola puta hurak. Bortzatzaillez inguratuta gaude —pentsatu zuen Mirianek, baina— Mousurietara goaz! —esan zuen.

Begoña ez zuten etxe aurrean aurkitu aurrekoan bezala, beraz txirrina jo zuten birritan, baina ez zuten erantzunik jaso. Etxearen atzeko aldetik sartzen saiatu ziren baina oso altua zen hezia. Autoa garajejan ikusi zutenez, errazena zen andrea etxean egotea. Orduan kotxeko sirena-argiak

piztu eta berriro deitu zuten.

—Alde hemendik! —entzun zuten goiko aldeko leiho batetik.

—Aizpurua andrea, zurekin hitz egin nahi dugu.

—Hitz egin dugu nahikotxo, alde nire etxetik! —erantzun zien garrasika.

—Zergatik konbentzitu zenuen zure alaba bortxaketa salaketa kentzeko?

—Ez dagoelako justiziarik inon ere ez! Ez dituzu berriak entzuten? —
Mirianek keinu bat egin zion agenteari atzeko aldetik sartu zedin eta
galderak egiteari ekin zion, denbora luzatzeko asmoarekin.

—Baina salaketa jarrita errezago da bortxatzailek harrapatzea.

—Eta bi hilabete eta gero berriro kalean? Kabroi hutsak dira denak, eurak,
epaileak, poliziak eta denak! Alde egiteko esan dizut! —eta eskopeta atera
zuen lehotik.

Mirian, ziztu bizian, makurtu eta kotxearen bestaldean babestu zen.

—Gauzak gaiztotzen ari zara, andrea, jaitsi eskopeta hori! Zuk hil dituzu
kabroi horiek, ezta? —probokatu zuen.

Orduan tiro hotsa entzun zen auzo osoan. Mirianek kotxe azpira sartzea
lortu zuen hala ere, instintoak eramanda. Unai agenteak Begoña zegoen
gelaren atea kolpez zabaldu eta bere armarekin apuntatu zuen. Orduan
honek, bere bizitzan drama asko jasandako emakume mardulak, pentsatu
barik, bigarren tiroa bota zuen eskopeta aterantz apuntatuz. Unai libratu
egin zen, entrenamenduetan bezala, atea zabaldu eta lurrera bota zelako.

Bi aste dirau epaiketak honez gero, eta luzera joko duenaren antza dauka.
Hainbeste galdeketa, lekuko, txosten, hipotesi, eta abar. Begoña
inkulpatuta dago homizidio saiakera karguarekin polizien kontra
eskopeta-tiroak botatzegatik. Horren lekukoak udaltzain bat eta ertzain bat,

sargentu bat hain zuzen ere, euren kontra izan baitzen tiroketa. Beste bi gizonen hilketak ere, berari leporatu nahi dizkio akusazio partikularrak, gaztearen eta madrildarraren familiek, hori egiteko arrazoiak eta ahalmena izan zuela argudituz: gazte deustuarraren kasuan, bere alabak jarritako salaketa, eta, Arrarte jatetxeko kamareroaren komentario batengatik ezagutu zituela madrildar ahoberoak kontatutakoak, eta honek bertan hartzen zuela azken kafea hotelera joan aurretik. Baina, ez kasu batean ez bestean, ez dira aurkitu hilketa bakoitzean erabili diren armak eta akusatuaren beraren konfesiorik egon ezean, oso zaila izango da sukaldaria erruduna dela probatzea.

Nik ere deklaratu behar izan dut lekuko gisa, baina ez dut ia ia ezertxo ere esan. Zenbat bezero edukiko genituzke jendeak edaten duen bitartean kontatzen dituenak errepikatuko bagenitu? Ez zenukete sinistuko zelako gauzak entzuten ditugun zerbitzariok! Behin edariak aterata ikustezenak bihurtzen gara eta, hainbat urtetan lanbide honetan, jakin beharko ez genituen kontu dezente ezagutzen ditugu. Gainera, ez nauzue ikusi azkenengo hilabeteetako protestaldietan?

Sexu abusu edo eraso pairatu duten emakume guztiei

Euskara irakasle izan zen AEKn eta liburuzain. Plentziako LITEROHITURAREN irakurketa taldea zuzentzen du eta NASAKO KONTAKIZUNAK-en sustatzailea da. Hainbat ipuin-liburu kolektibotan parte hartu du: Genero indarkeriaren desagerrarazteko mikro-istorioak, Mikroerrekuak, Ongi etorri errefuxiatuak...

Genero beltzean haren lehenengo inkursioa izan da hau.



BRUMA NEGRA

LANBRO BELTZA

Plentzia Beltza

Calibre .38

